




Jasangarritasuna

ENPRESAREN GIZARTE
ERANTZUKIZUNARI BURUZKO
2020KO TXOSTENAREN
LABURPENA

Txosten hau sakontzat egiaztatu du AENOREk, GRI Standards eta 11/2018 legea, abenduaren 28koa, informazio ez-finantzarioari eta dibertsitateari buruzkoa, ezartzearen bidez.



LABORAL
kutxa




COVID-19ak eragindako pandemia izan da 2020. urteko ezaugarri nagusia. LABORAL Kutxak buru-belarri jardun du bere jardueraren sendotasunari eusten, bere bezeroei zerbitzua ematen, eta enpresa, negozio eta familiei finantza-irtenbideak eskaintzen, egoera berri eta ezezagun horri aurre egiten laguntzeko.

Krisi honek agerian jarri du, inoiz baino gehiago, sistema ekonomikoa zuzendu eta gizartearen eta ingurumenaren aldetik jasangarriagoa den bete eredu batera bideratu beharra dagoela. Ondorengo orrialdeotan, LABORAL Kutxak etorkizun jasangarriagoa lortzeko egindako ekarpenaren berri eman nahi dugu.

Kooperatiba bat gara

KAPITAL SOZIALA 2020-12-31N

777,9 M€



- Lan-bazkideak
- Bezeroak – Pertsona fisikoak
- Elkartutako kooperatibak
- Bazkide laguntzaileak



1. Jasangarritasuna eta gure bezeroak



Produktu arduratsuak



TXARTELAKE

39.488 €

Medicus Mundira, Caritasera eta Ikastolen Elkartera bideratutako zenbatekoa, Affinity txartelen bidez.

SLK KONTUA

11.066 €

Nazioarteko lankidetzaproiektuetarako (Zaporeak, Mundukide, Alboan eta Medicus Mundi) emandako zenbatekoa.

LK Konpromiso
INBERTSIO-FONDOA

77.117 €

Inbertsioak aukeratzeko orduan, ingurumenari, gizarteari eta korporazioaren gobernantza onari lotutako irizpideak hartzen ditu kontuan. Era berean, gestio-komisioen zati bat Medicus Mundira, Mundukidera eta/edo Caritasera bideratzen du.

Zibersegurtasuna

Bezeroen informazioa babestea eta zibersegurtasuna dira LABORAL Kutxaren lehentasunak.

1. PREBENTZIO-, DETEKZIO- ETA ERREAKZIO-NEURRIAK

2. EKINTZA-LERROAK:

- Erabateko Segurtasunerako Plan Zuzentzailea.
- Gobernuaren, babesaren, erresilientziaren eta zaintzaren alorretako gaitasunak.
- Azken belaunaldiko antimalwarea.
- SOC/SIEM zerbitzua, 24 orduz urteko 365 egunetan.
- Hacking-ariketak.



Zerbitzuaren kalitatea

Enpresa garen aldetik bezeroei zerbitzu-kalitate bikaina eskaintzea da gure helburuetako bat.

Merkatuko azterketa independenteen arabera, sektorean lider izaten jarraitzen dugu.



	2017	2018	2019	2020	Bilak.
Banco Mediolanum	-	-	8.35	8.40	+ 0.05
Ing Direct	8.36	8.21	8.06	8.25	+ 0.19
LABORAL Kutxa	7.72	7.83	7.73	7.90	+0.17
Bankinter	7.47	7.67	7.75	7.87	+ 0.12
Banca March	7.99	8.03	8.04	7.87	- 0.17
Grupo Coop. Cajamar	7.63	7.57	7.50	7.67	+ 0.17
BBVA	7.52	7.65	7.48	7.50	+ 0.02
Ibercaja	7.68	7.53	7.58	7.44	- 0.14
Sektorea	7.39	7.45	7.48	7.42	- 0.06
Deutsche Bank	7.41	7.43	7.26	7.40	+ 0.14
CaixaBank	7.61	7.54	7.51	7.37	- 0.14
Santander	7.04	7.22	7.29	7.32	+ 0.03
Banco Sabadell	7.49	7.47	7.32	7.26	+ 0.06
Bankia	7.08	7.16	7.41	7.25	- 0.16
Abanca	7.32	7.35	7.41	7.21	- 0.20
Kutxabank	7.32	7.30	7.40	7.04	- 0.36
Unicaja Banco	7.16	7.25	7.07	7.02	+ 0.05
Liberbank	6.83	7.10	7.17	6.92	- 0.25

Iturria: STIGAk Erakundearekiko Gogobetetasun Globalari buruz 2020an egindako azterlana.

Krisialdietan enpresa eta negozioiei laguntzea

COVID-19aren pandemiak eragindako ondorio ekonomiko larriak izugarritzko erronka dira enpresa eta negozioentzat.

LABORAL Kutxak laguntza eman die bere bezeroei **715 M€-ko** finantzaketa-eragiketen hitzarmenak sinatuz, krisialdiaren unerik okerrenak saihesten laguntzeko.

Erakunde publikoa (mila €-kotan)	Formalizatutako eragiketa-kopurua	Formalizatutako zenbatekoa
KOI	4.595	450.750
Eusko Jaurlaritza + Elkargi	2.825	193.864
Nafarroako Gobernua + SODENA	393	29.169
EIF (Europako Inbertsio Funtza)	126	11.244
EaSI Micros II	1.757	26.617
Luzaro	31	4.073
Maileguak + Leasinga	9.727	715.417


Mailegu- eta leasing-eragiketez gain, KOIren hitzarmenaren babespeko zirkulatzaille-lerroen eragiketak sinatu dira, baita Elkargi, Iberaval eta elkar bermatzeko beste sozietate batzuen abala duten eragiketak ere.

Digitalizazioa eta kanal berriak

Kanal berriek gero eta garrantzi handiagoa dute, eta gure bezeroekin harremanetan egoteko bide nagusietako bat dira jada.

Bestalde, bezeroekin komunikatzeko kanal ez-presentzialak zabaltzeko beharra ekarri du COVID-19ak eragindako egoerak. Urruneko Bankaren bidez emandako erantzunen kopuruak hazkunde handia izan du:

KANAL BERRIEN ERABILTZAILEAK DIREN BEZEROAK



A photograph showing a person in a patterned shirt assisting another person up a rocky, uneven terrain. The person being helped is wearing a dark shirt and light-colored pants. The background is a blurred natural setting. The image is overlaid with a diagonal color gradient from pink to green. The text '2. Gizartearen parte gara' is written in white on the left side.

2. Gizartearen parte gara



Gaztenpresa Fundazioa

Irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatua da **Gaztenpresa**. LABORAL Kutxaren gizarte-lanean txertatuta dago, eta enpresak eratuz enplegua sortu eta sendotuko duten ekimenak eta ekintzak sustatzea du helburu.

LABORAL Kutxak finantzatzen du enpresa-sorrera, MONDRAGON Korporazioaren, Eusko Jaurlaritzaren (Lanbideren) eta Europako Gizarte Funtsaren laguntzarekin.

2020an izandako egoera zaila gorabehera, **Gaztenpresak honako hauen sorrera bultzatu du:**

> 256

MIKROENPRESA

> 504

LANPOSTU

Zergak

LABORAL Kutxak jarduera gauzaten duen lurraldeetan betetzen ditu zerga-obligazioak. Horrela, zerbitzu publikoei eusten eta gizartea garatzen laguntzen du.

Hona hemen 2020an ordaindutako kopurua, gutxi gorabehera:

> 35,5 M€

LABORAL Kutxaren zergak eta tributuoak*	33.606
Lagun Aroren zergak eta tributuoak	1.874
BATURA (mila €-kotan)	35.480

*Sozietateen gaineko Zerga, BEZa, EIJZ, Gordailuak, DTAk eta abar barne hartuta.

3. Gure pertsonek




Emakumeen eta gizonen berdintasuna

LABORAL Kutxan 1997tik lan egiten dugu berdintasunaren alde, eta dagoeneko gure 4. Plana ari gara jorratzen.

Urtez urte handituz doa ardurarik handieneko lanpostuetan ari diren emakumeen ehunekoa:

PERTSONAK ADMINISTRAZIO-ORGANO GORENEAN



LABORAL Kutxa


IBEX 35eko enpresetan.

Iturria: CNMV.

■ Emakumeak

■ Gizonak

EMAKUMEAK ERANTZUKIZUNIK HANDIENeko LANPOSTUETAN




Soldata-arrakala

LABORAL Kutxan, lanpostu berdinean soldata bera jasotzen dugu langile guztiok. Gure kasuan, erantzukizun handiko lanpostuetan oraindik gizon gehiago egotea eta haien antzintasun handiagoa dira soldata-arrakalaren arrazoiak.

Ibex 35eko enpresetan, plantillaren batez besteko soldata halako 123 da exekutibo nagusien soldata. LABORAL Kutxan, berriz, **4,6koa** da aldea.


GIZONEN ETA EMAKUMEEN LAN-INDIZEEN ARTEKO ALDEA



Estatuan
% 29,3

Iturria: El Economista

Batez besteko lan-indizea



Zenbat gehiago kobratzen dute exekutiboek plantillaren batez besteko soldatarekin alderatuta?

■ LABORAL Kutxa
■ IBEX 35

Iturria: Oxfam Intermon

zainduz

Osasun-plana

Zainduz da gure osasun-plana, eta plantillaren nahiz inguruko osasuna zaintzea eta bizi-ohitura osasungarriak sustatzea du helburu. Pertsonen ongizate fisikoa eta emozionala hobetzea nahi dugu, elikaduraren eta jarduera fisikoaren bidez.

2020an, honako hauek izan dira Zainduzen jardueraren helburuak: plantillari laguntzea pandemian zehar (telelana, jarrera positiboa, ariketa fisikoa, ongizate emozionala...) eta mugikortasun iraunkorreko ekimena plazaratzea.



An aerial photograph of a solar farm. The solar panels are arranged in long, parallel rows that recede into the distance. The panels are dark blue or black, and they are mounted on a grid of metal supports. The ground between the rows is covered in green grass. The lighting suggests it's daytime, with some shadows cast by the panels. The overall scene is a vast, open field dedicated to renewable energy.


4. Ingurumen- iraunkortasuna

Karbono-aztarna

CO2-aren isuriak % 83 murriztu ditugu 2020an. **Elektrizitate guztia energia berriztagarrietatik kontsumitzea** izan da jaitsiera horren arrazoi nagusia.

> -% 83

ISURTZEEN BANAKAPENA JATORRIAREN ARABERA. KARBONO-AZTARNA



Kontsumoak

Papera da erabiltzen dugun lehengai nagusia, bai publizitatean bai bulegoetan. 2020an, % 18,5 egin du behera paperaren kontsumoak.

> -% 18,5 | paperaren kontsumoa

Jaitsiera horrek hau suposatzen du: 1.150 zuhaitz gutxiago moztea eta 17 milioi litro ur aurrezteak, gutxi gora behera.



Klima-aldaketa

Klima-aldaketari buruzko lehen analisia egin dugu 2020an, TCFD (Task Force On Climate-related Financial Disclosures) erakundearen gomendioei jarraituz. Analisi horren ondorioz, honako ekintza-lerro hauek finkatu ditugu 2021erako:

- Klima-aldaketaren arrisku eta aukerei buruzko analisia egitea.
- Jasangarritasunaren gobernantza berrikustea.
- Finantza jasangarrien estrategia ezartzea.
- Datuaren gobernantza-plana.
- Plantillari finantza jasangarrien inguruko prestakuntza ematea.
- Finantza-jardueraren inpakturen analisia egitea, NBIP FEren jarraibideen bidez.
- Zorroaren sailkapenean Europar Batasunaren taxonomia ezartzeko aukera aztertzea.



5. Tokiko banka



LABORAL Kutxak presentzia duen lekuan bertan erosten ditu ondasunak eta zerbitzuak. Zehazki:

> % 94,9

Tokiko enpresei
erositako

**ONDASUNAK ETA
ZERBITZUAK**

> % 45,5

Gure Zerbitzu Zentraletatik
(EAE) 100 kilometrora baino
gutxira erositako


**ONDASUNAK
ETA ZERBITZUAK**

A stack of approximately ten dark, irregularly shaped rocks is balanced precariously on a rocky, uneven surface. The background shows a vast, open landscape with rolling hills under a hazy sky. The image is overlaid with a diagonal gradient that transitions from a deep purple on the left to a vibrant green on the right, with a white area at the bottom right corner.

6. Negozioaren magnitude nagusiak

Aurreko orrialdeetan azaldutako guztiak ez du eragozten LABORAL Kutxa enpresa-proiektu bikaina ere izatea:

Entitatearen magnitude nagusiak



Bateratuak 2020-12-31n

Bulegoen banaketa geografikoa





LABORAL
kutxa